5’.2 inprimakia

Inprimaki honek zenbait neurri, jarduketa eta instalazio biltzen ditu, helburu dutenak saneamendu-sistemek euri-aldietan gainezka egiteak eragin dezakeen kutsadura murriztea. Inprimaki hau betetzeko, **idatzi letra larriz, eta markatu gurutze batez** dagozkion laukitxoak. Eman **ahalik eta informazio gehien,** eskaera behar bezala izapidetzeko.

Espediente-zenbakia:	

Espediente-zenbakia izanez gero bakarrik bete behar da.

Orri zk.:		Orriak, guztira:	

1 Saneamendu-sistemek gainezka egitea euri-aldietan

a) Neurri-multzoa[i]

Beharrezkoa izango da zehatz ematea saneamendu-sistemaren deskribapena eta karakterizazioa[ii]

Kutsadura kontrolatzeko jarduketak[iii]	Definitua	Ezarria	Ezartzeko aurreikusitako data (UUUU/HH/EE)
Saneamendu-sistemaren jardute- eta mantentze-programa	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
Saneamendu-sistemaren gainezkatzeak kentzeko neurriak, eguraldia lehorra denean	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
Saneamendu-sarearen biltegiratze-ahalmena maximizatzeko neurriak	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
HUAra bertan tratatzeko eramandako emariak maximizatzeko neurriak	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
Gainezkatzeen zaintza- eta karakterizazio-programa	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
Kutsadura gutxitzeko neurriak, saneamendu-sistemek gainezka egiten dutenean	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	

Orri Zk.:		Orriak, guztira:	

Solidoak eta flotatzaileak mugatzeko neurriak, saneamendu-sistemek gainezka egiten dutenean	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	
Beste jarduketa batzuk (zehaztu)	☐Bai ☐Ez	☐Bai ☐Ez	

Gauzatu gabe dauden jarduketak gauzatzeko kronograma aurkeztu beharko da.

b) Neurriak, obrak eta instalazioak kontrolatzeko elementuak, saneamendu-sistemek euri-aldietan gainezka egiteak eragindako kutsadura mugatzeko[iv]

Kontrol-elementuaren Zk.[v]	Gainezkatzeari lotutako isurguneen Zk.[vi]	Kontrol-elementu mota[vii]	Kontrol-elementuaren helburua[viii]	Kontrol-elementuaren kokapena

2 Isurketa-adierazpena betetzeko jarraibideak

5'.2 inprimakia

Isurketa-baimenen eskatzaileek bete behar dute inprimaki hau, baldin eta isurketa horietan saneamendu-sistemen gainezkatze-fluxuak badaude, talde hauetan sartzen direnak:

- 2015/12/31tik aurrera aurkeztutako eskaera berriak, 2.000 biztanle-baliokide baino gehiagoren hiri-isurketenak
- 2015/12/31tik aurrera aurkeztutako eskaera berriak, industria-isurketenak
- Indarreko baimenak, 50.000 biztanle-baliokide baino gehiagoren hiri-isurketenak, 2015/12/31 baino lehen izapidetzen ari zirenak edo eskatu zirenak
- Indarreko baimenak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak araututako industria-isurketenak, 2015/12/31 baino lehen izapidetzen ari zirenak edo eskatu zirenak
- Indarreko baimenak, 2015/12/31 baino lehen izapidetzen ari zirenak edo eskatu zirenak, 2.000 - 50.000 biztanle-baliokide bitarteko hiri-isurketenak, edo aurrekoak ez bezalako industrialdeenak, bainatzeko adierazitako guneetara isurtzen direnak.

Hala ere, Uraren Euskal Agentziak modu arrazoituan eskatu ahal izango die inprimaki hau bete dezaten, isurketa-baimenak eskatu baina aurreko taldeetakoak ez diren eskatzaileei, betiere gainezkatzearen tamainaren eta ingurune hartzaileko ingurumen-helburuetan duen eraginaren arabera.

Inprimaki hau betetzeko, aintzat hartu beharko dira administrazio eskudunak emandako arau teknikoak. Arau tekniko horietan, oinarrizko arau teknikoak ematen dira, hiri-jariatzea, saneamendu-sistemak eta saneamendu-sistemaren gainezkatzeen ondoriozko isurketak kudeatzeko instalazioak diseinatzeko, Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 249.quater.5 artikulua aplikatuz.

A) NEURRI-MULTZOA

i. Saneamendu-sistema guztietarako, dokumentu espezifiko bat edo gehiago idatzi eta onartu behar dira, eta dokumentu horietan jasoko dira euri-aldietan saneamendu-sistemek gainezka egitearen ondoriozko kutsadura mugatzeko neurriak, jarduketak eta instalazioak.
ii. Saneamendu-sistemaren deskribapen eta karakterizazio zehatza egiteko, hauek aipatuko dira: eskuratutako informazioaren azterketa eta analisi bat, saneamendu-sistemaren kontrola (halakorik behar bada) eta saneamendu-sistemaren eredu bat.
iii. Aurreikusitako jarduketen laburpen-fitxak entregatu behar dira, baita horien eskema eta plano deskriptiboak ere.

B) SANEAMENDU-SISTEMEK EURI-ALDIETAN GAINEZKA EGINDA ERAGINDAKO KUTSADURA MUGATZEKO NEURRIAK, OBRAK ETA INSTALAZIOAK KONTROLATZEKO ELEMENTUAK

iv. Deskribatu behar da zer elementu erabiliko diren saneamendu-sistemek euri-aldietan gainezka egiteak eragindako kutsadura mugatzeko neurriak, obrak eta instalazioak kontrolatzeko (erantsi ezazu hori guztia egiaztatzeko beharrezko den dokumentazioa).
v. Eman ondoz ondoko zenbaki bat kontrol-elementu bakoitzari (1,2,3…)
vi. Kontrol-elementuari lotuta dauden gainezkatzearen isurgune guztiak adierazi behar dira (5´.1.A inprimakian jarritako zenbakien arabera). Gainezkatzearen isurgune bat baino gehiago baldin badago, guzti-guztiak adieraziko dira, komen bidez bereizita.
vii. Kontrol-elementuaren deskribapen labur bat erantsi beharko da: emari-neurgailua, limnimetroa, kutsadura-parametro jakin batzuen etengabeko neurgailua, neurketa diskretuak egiteko lagin-hartze automatikoa, etab.
viii. Adierazi behar da zein den kontrol-elementuaren helburua: emaria neurtzea, mailak neurtzea, kutsaduraren karakterizazioa, etab.